

Idatzizidatzi

Nerea Iriondo Osa



erein

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa Sailak onetsia (2009-11-13)*

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Nerea Iriondo Osa

© EREIN. Donostia 2009

ISBN: 978-84-9746-484-0

L. G.: SS-373/09

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

IDATZIZ IDATZI

Nerea Iriondo Osa

Arkibidea

Hitzaurrea	9
Gutunak	11
Erreklamazio gutuna	12
Eskaera gutuna	25
Gonbidapen mezua	34
Informazio testuak	43
Deskripzioa	44
Sailkapen testua	54
Konparaziozko testua	62
Narrazioa	71
Fikziozko narrazioa: ipuina/pasadizoa	72
Narrazio errealak: gertaera historikoa	85
Biografia	95
Jarraibideak	103
Argudio testua: iritzi artikulua	111
Curriculum vitae	121
Eleberraren iruzkina	131

Hitzaurrea

Komunikazio idatzia gero eta zabalduago dugu gizarte honetan. Azken urte hauetan, teknologia berrien garapen etengabea bultzada handia ematen ari zaio komunikazio idatziari, formalari zein informalari. Garai hauetan, hiritar gaitua izateko ezinbestekoa da gure gizartean komunikaziorako erabiltzen diren hainbat idatzi idazteko gai izatea.

Argi dago Derrigorrezko Hezkuntzako ikasleek idazten badakitela; izan ere, ikasketetan zehar hainbat eta hainbat testu idaztea eskatzen zaie behin eta berriro. Hala ere, idaztea, besterik gabe, ez da nahikoa; Derrigorrezko Hezkuntza amaieran idazteko gaitasun maila jakin bat lortu behar dute. Gizarte harremanetarako beharrezkoak diren idatziak zein ikasketetan edo hainbat lanetan erabiltzen direnak idazteko gai izan behar dute.

Euskal Autonomía Erkidegoko oinarrizko curriculumak dioenez, Europako Erreferentzia markoko mailaketan oinarrituta, B2 maila da ikasle euskaldunek euskaraz lortu behar duten maila. Maila hori izan behar dute komunikazioak eskatzen dituen trebetasun guztietan: entzumenean, mintzamenean, irakurmenean eta idazmenean. Liburu honetan, idazten B2 maila izateko zer eta nola idatzi behar den argitu nahi da.

Idatziz idatzi izenburuak bi esanahi ditu, biak liburuaren xedearekin bat datozenak. Esanahi baten arabera, idazten idatziz ikasten da. Ideia honi jarraituz, liburu hau idatziak idazten lagunduko duen gidaria da. Horretarako, jarraibide sorta bat eskaintzen du: idazten hasi aurretik hartu behar diren erabakiak, idazte prozesuan zehar egin behar diren urratsak eta, amaitzeko, idatzitakoa berrikusi eta zuzenketak egiten lagunduko duten galderak.

Dakigunez, idaztea prozesu bat da. Eta nabaria da prozesu horretan idazlea askotan galdu edo, behintzat, trabatu egiten dela. Horregatik, prozesu honen erabaki eta urrats guztiak agerian utzi eta bidea argitu nahi izan da. Idatzi bakoitza idaztean, idazteko prozesuko hiru uneak bereizten dira: planifikazioa, idazketa eta berrikuspena. Atal bakoitzean hartu behar diren erabakiak eta egin behar diren urratsak zehazten dira.

Izenburuaren bigarren esanahiaren arabera, idatziz idatzi jauzi eginez arituko gara. Idazten jakin behar dena zer den azaltzeko, testu multzo baten hautaketa aurkezten da. Ez dira noski

ezagutu behar diren testu guztiak; baina bai testu horien eredu multzo bat. Horrez gain, nola idatzi behar den ere argitu nahi izan da. Hori egin ahal izateko, idatzi bakoitzak dituen ezu-garriak kontuan izanda, behar izango diren hizkuntza tresnak eta hauek erabiltzeko aholkuak tartekatu dira behar diren unean erabiltzeko.

Idazten ari denak, erabaki eta urratsez gain, unean uneko hizkuntza tresnak behar izaten ditu. Idatzi bakoitzak bereak dituen ezaugarriak ditu: esamoldeak, esaldiak, lexikoa, eta abar. Idatzi bakoitza idazteko, urratsez urrats, behar diren hizkuntza tresna nagusiak zehaztu eta lagungarri bihurtzeko saioa era egin da.

Idatziak hautatzeko orduan, irizpide nagusi bat izan da kontuan: gaur egun, eguneroko bizitzan erabiltzen diren idatziak izan daitezela. Hauen artean daude bizitzako esparru ezberdinetan erabiltzen ditugun idatziak: esparru akademikoan, erakundeekin ditugun harremanetan, lagunartean, hedabideetan eta abar.

Idazteko gaitasuna hobetzeko bidean, liburu honek idazlearen gidari izan nahi du. Horretarako, idatzi bat idazteko orduan eman behar diren urratsak liburuan bertan ematen dira, urratsez urrats eredu bat aurkezten da. Jarraian, egoera jakin bat proposatzen da. Erabiltzaileak, ereduaren urratsak ematen diren aldi berean, bere idatzia idazteko aukera izango du. Era honetan, aurkezten diren testu motak idazten trebatzeko balio izango du.

Baina ez da hau liburuari eman diezaiokegun erabilera bakarra. Liburua beste egoeretako idatziak idazteko ere erabil daiteke, gida moduan. Orduan, liburua ez da erabiliko idazten trebatzeko helburuarekin, baizik eta idazteko jarraibide eran. Demagun erabiltzaileak eskaera gutun bat idatzi behar duela; liburuko ereduak eta jarraibideak erabil ditzake bere eskaera gutuna idazteko.

Azkenik, *berrikusten* atalean, idazleak bere lana aztertzen laguntzeko galderak izango ditu. Galdera hauek, idazlana berrikusi eta hobetzeko erabiltzeaz gain, idazlanak ebaluatzeko ere erabil daitezke. Era honetan, hobeto idazten ikasteko bidean guztiok ditugun zailtasunen eta lorpenen jakitun izateko erabil dezakegu.

1. ERREKLAMAZIO GUTUNA



Erreklamazioa egiten dugunean, gure ustez, legez dagokiguna eskatzen ari gara. Gure gizar-tean erakunde edo enpresa handiei erreklamazio bat egiteko erarik erabiliena erreklamazio gutuna da. Horregatik, oraingoan, erreklamazio gutuna idazten ikasiko dugu.

• Eredua

Eredu moduan, egoera honetako erreklamazio gutuna idatziko dugu:

Erreklamatzailleak etxebizitza berri bat erosi du eta berogailua ez dabilela konturatu da.

• Proposamena

Zure asmoa erreklamazio gutun bat idazten trebatzea bada, hona hemen idatz dezakezun gutun baten egoera:

Orain dela bi hilabete telebista bat erosi zenuen eta, handik astebetera, telebista ez zebilen. Erositako tokira eraman eta konpontzera bidali dute, baina konpondu eta handik bi egunetara berriro telebista ez dabil.

Beste edozein egoerari dagokion erreklamazio gutun bat idatzi nahi baduzu, egingo dugun idazketa prozesua jarrai dezakezu.

Erreklamazio gutuna planifikatzen

1. erabakia: gutun mota aukeratu

Gutuna idaztea erabaki dugunean, hau izango da hartuko dugun lehen erabakia: idatziko dugun *gutun mota*.

Gutunen artean era ezberdinetako gutunak aurki ditzakegu. Gutun mota gutunaren funtzioaren arabera aukeratu dugu, hau da, dugun asmoarekin egongo da lotuta. Gure asmoa eskaera bat egitea bada, eskaera gutuna idatziko dugu; gure asmoa gonbidatzea bada, gonbite gutuna idatziko dugu.


- Gutun motak: Eskaera gutuna
 Erreklamazioa
 Gonbitea
 Zorion gutuna

Gure asmoa kexa aurkeztu eta, ondorioz, dagokiguna eskatzea bada, *erreklamazio gutuna* aukeratu dugu.

2. erabakia: egitura eman

Aukeratu dugun gutunari *egitura* eman behar diogu. Gutun mota bakoitzak bere egitura du. Hau da erreklamazio gutunaren egitura:

	Herria eta data Nori zuzendua
Agurra:	
Hasierako egoera	
(Arazoa)	
	... / ...




Parentesien artean jarritako atalak aukerakoak dira.

3. erabakia: paragrafoak antolatu

Jarraian, testua *paragrafoetan antolatuko* dugu. Paragrafoak antolatzean, idatziaren egitura izango dugu kontuan. Paragrafo bakoitzak ideia nagusi bat garatuko duenez, atalak paragrafo ezberdinen bidez garatuko ditugu; nahiz eta, batzuetan, atal bat idazteko paragrafo bat baino gehiago behar izango dugun.

Hona hemen erreklamazio gutun baten paragrafoen antolaketa:



Laugarren paragrafoa: (laburpena)

.....
.....
.....

Agurra

Sinadura

(Oharra)

4. erabakia: erregistroa aukeratu

Idazten hasterako, argi izan behar dugu zein den testuingurua, horrek baldintzatuko baitu gutunean erabiliko dugun *erregistroa*. Laneko, eskolako, enpresetako edo erakundeetako testuinguruan idatzitako gutunetan, hizkuntza formala erabiliko dugu.

Erreklamazio gutuna enpresa edo erakunde bateko arduradunari zuzenduko diogunez, erregistro formala erabiliko dugu:

- Erregistro formala: *Alkate jaun/andrea*
Honako eskaera hau egin nahi dut
Nire iritzia kontuan izatea eskatzen dizut

Zuk ere erreklamazio gutun bat idaztea erabaki baduzu, aurretiko erabaki hauek hartu behar dituzu.

Erreklamazio gutuna idazten

1. urratsa: herria eta data/nori zuzendua idatzi

Gutuna idazten hasten garenean, *Herria eta data* eta *Nori zuzendua* dagoen idatziko dugu: